

noaua



USURBILGO BISITA GIDATUAK, ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIETAN

Urrian eta azaroan zehar, 120 ekitaldi egingo dira Gipuzkoako 37 udalerritan; haietatik hiru, Usurbilen / 05. or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Erosketa bonu kanpaina berria astelehenean abiatuko da / 07




NOAUA

Lauburu konpartsak urteko azken kalejira egin zuen Aginagan / 11



NOAUA

Txalaparta Festa, Jexux Artze KE eta 650 Usurbil Biziren eskutik / 16



NOAUA

Kalakan eta Berçaits Anaiak, igande honetan kantaldia Aginagan / 22



EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA

KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera

8:00-00:00 Ostirala eta Larunbata

**Astelehenetik Igandera sukaldea 10etan ixten da*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



IRTEERA 2026ko maiatza



Noaoak gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak

Larzusta z/g. AGINAGA  943 36 17 35 • 651 703 237

Parrilla onena, Olivi erretegiakoa

San Sebastian Gastronomika – Euskadi Basque Country biltzarraren baitan, Parrilla Txapelketa egiten da eta hamaseigarren edizioako garailea Kalezarko Olivi erretegia izan da, Discarlux haragi-enpresarekin batera.

2022an Saizar sagardotegia izan zen garailea. Hiru urte geroago, familia berarena den alboko Olivi erretegiak irabazi du, Discarlux haragi-enpresarekin batera, XVI. Parrilla Txapelketa Nazionala.

“Discarlux etxeak hautatu digun haragi on horretaz gain, denborak lehiaketak eskatzen zuenera egokitzen jakin dugu”.



San Sebastian Gastronomika jardunaldiaren jokatu da XVI. Parrilla Txapelketa eta honakoan, irabazlea, Olivi erretegia izan da.

Francisco Javier Aldapaga
“Pako” erretegiako parrilleroa

da eta bere esanetan, “hara-
giak iragazte bikaina zuen

gainera, eta ondo zigilatu
dugu”.

Garbigune mugikorra, Santuenera

Txokoaldetik Santuenera lekuz aldatuko du Udalak urriaren 16an garbigune mugikorra. Bertan izango dute hilaren 22ra arte. Gero, Kalezarrera eramango dute.

Bestalde, bi astero moduan, errefusa biltzeko eguna izaten da. Hurrengo errefus bilketa urriaren 26an egingo da.

'Goazen kalera' Egurtzegitik igaroko da urriaren 21ean

Astearteroko paseo osasuntsuen dinamikaren hurrengo geltokia Usurbil izango da urriaren 21ean, 10:30-12:00 artean. Bertako frontoitik abiatuko da eta oraingoan, Egurtzegitik igaroko da. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek sukaldaturiko hamaiketako dastatuko dute.

Nekazal ibilgailuei IAT azterketa egiteko aukera

Urriaren 17an ostirala, traktoreek eta nekazal ibilgailuei IAT azterketa egiteko aukera izango dute Alkartasuna kooperatibaren aurrean dagoen apartokalekuan. Txanda hartzeko, ITEVELESA Irun enpresara deitu behar da: 650874017 / 943626300. Zerbitzua eskudirutan ordaindu beharko da.

1959. urtekoak datorren astean batuko dira

Kintoen garaia izan ohi da udazkena. Batzuk ospatu dute honez gero, beste batzuk datozten egunetan elkartuko dira. 1959. urtekoak urriaren 25ean batuko dira Artzabalen.

Interesa duenak aurretik deitu behar du ondoko telefono zenbakira: 659139073 (Eli).



Argitaratzailea:
Noaqua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaqua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoinen.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaqua.eus
Banatzailea:
Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia, Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (12)

Alaitz korrika jaitsi zen herrira. Kapitaleko poliziak nondik zebiltzan jakin nahi zuen. Falta zitzaion bakarra miaketa bat zen. Jadanik hogeitik gora susmagarri atxilotu zituzten, eta bazekien zein izango zen haien patua. Ez zuten halakorik nahi haren etxe koentzako.

Belmonte kalean aurrera, etxe guztietako leihoak itxita sumatu zituen. Denak beldur ziren. Zaharrenek oraindik gogoratzen zuten markesa lehen aldiz Usurbila etorri zenekoa. Orduko hartan hamasei urte izango zituen. Titulua eskuratu berri zuen haren aita hil berritan, eta serio ez hartzeko beldurrez, zekenetan zekenena izan zen. Guztiak haren neurrira egon behar zuen, haren usteko keinu itsusi bat nahikoa zen errepresaliak egoteko. Gazte zorrotzat zeukaten den-denek, baina batez ere haren maizterrek. Zorrik ez zien barkatzen, eta zigorrekin are gogorragoa zen. Herriaren aita zaindaria zela barruraino sartu zitzaion, eta horretarako bitarteko guztiak baliatuko zituen. Gerora, jendeak otzan-otzan betetzen zituen haren esanak, eta inork ez zuen hatzik altxatzeko adorerik. Gazteenek ez zuten ezagutu markesaren alderdi hura, eta beraz, ahoa hitz potoloekin betetzen zuten. Zaharrak zuhurragoak ziren, eta kontuz ibiltzeko aholkatzen zien, ez zekitela benetan nolakoa zen markesa.

Egun hura arte. Animalien pare tratatzen zituen usurbildarrak. Hari kendutakoa berreskuratu beste asmo zuen, gainerako guztia berdinez zutzaion.

Alaitzek distantziatik nabaritu zuen markesaren sen iluna. Hotzikara batek bizkarra gurutatu zion, eta kale erdian geldidageldi geratu zen. Bere onera itzuli zenean, korrika ekin zion etxerako bideari. Markesaren alabak ezin zuen Troian egon, handik alde egin behar zuen, bestela markesa bera gaitzen baserriaren zimenduak ere birrintzeko.

Igo zen ganbarara, eta hantxe jarraitzen zuten biek. Izu-ikarak hartuta, besotik heldu zion Helenari, eta eskaileretan behera eramane zuten. Alde egiteko agintzen zion, baina neska egoskortuta zen. Inesekin alde egin nahi omen zuen, eta hola ez bazen, hantxe geldituko zela. Alaitzek ezin zuen sinetsi neska haren jarrera. Umekeria galanta zen hura. Aitari zenbat balio zuen demostratu nahi zion, besterik ez. Eta horregatik berdin zitzaion gainerako guztiak.

**"BERRIRO
KOLPATU ZUTEN
ATEA, ETA INESEK
INOZENTZIA
GUZTIZ ZABALDU
ZIEN ATEA
BESTALDEKOEI"**

Haren neurrira egindakoa izan behar zuen guztiak.

Une batez burutik pasatu zitzaion ahizpa neska apatatsu harekin bidaltzea. Ez bata, ez besteak ez zuten ikusi Bizkarretik aurrera zetorrena. Mendian biak galdu zirela esan, eta guztia konponduko zen. Kontua miaketarik ez egitea zen. Izan ere, Alaitz abertzale eta gorriekin lotuta zegoen, eta etxe hartan hankaren bat sartzen bazuten, hainbat urtetan antolatutako erresistentzia pikutara joango zen. Beste irtenbide batek egon behar zuen. Beldurra, ordea, ez zion pentsatzen uzten, eta gero eta urduriago jartzen ari zen.

Helenaren aurrean makurtu eta erregutu zion aitarekin itzultzeko. Neskak berean jarraitzen zuen. Desesperazioak goia jo zuen ateak kolpeak entzun zituen. Ezinezkoa zen markesa eta polizia hain azkar hara iritsi izana. Berriro kolpatu zuten atea, eta Inesekin inozentzia guztiz zabaldu zion atea bestaldekoiei.

"Lasai, Alaitz, ez dinagu honetan bakarrik utziko!". Poliziari aurre hartuta eta jakitun zer zegoen Troian, burkideak hantxe azaldu ziren. Markesaren alaba sukalde erdian topatzea ez zuten espero, baina, eta denak zur eta lur geratu ziren. "Eta kasualitatez gure karta irabazlea baldin bada?", bota zuen haietako batek. Markesak gehien nahi zuena eurek zeukaten, ezingo zuen nahi bezala jardun. Hori uste zuten.

Errigoraren udazkeneko kanpaina

Abiatzear du Errigorak urte garai honetako "Agerreko uzta euskarari puzka". Ekimenaren baitan, Nafarroa erdialde eta hegoaldeko produktuen saskiak etxeratzeko aukera izango da. Hiru saski izango dira aukeran. Eskabideak urriaren 23tik azaroaren 13ra egin ahaliko dira errigora.eus nahiz NOAUA! bidez. Jasotako laguntzaren laurdena bertako euskalgintzara bideratuko da.

Hurbilduz proiektuaren aurkezpena

Ostegun honetan, urriak 16, egingo da aurkezpena 18:00etan Potxoenean. "Arreta eta zaintza eredu publiko-komunitario berritzaile bat sortzea da auzo-zaintza proiektuaren helburua, adinekoen beharrei modu eraginkor eta iraunkorrean erantzun egotiena, ingurune bakoitzera egokitutako zerbitzu eta teknologia publikoen garapena sustatuz, gizarte-sarea indartuz eta adinekoen bizi-kalitatea hobetuz. Betiere, ikuspegi komunitario, prebentibo, parte-hartzaile, hurbil eta pertsonalizatuarekin", Udaletik azaldu dutenez.

Eskulanen tailerra

Gantxilloa, bolilloa... lantzeko taldea osatua dute. Etumeta AEK euskaltegiak duen egoitzan biltzen dira, astelehen goizeko, 9:30-11:30 artean. Urtritik ekainera izango dira bertan.





Ondarearen Europako Jardunaldiaren sustatzaileen talde argazkia. 123 ekintza programatu dituzte. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Hiru bisita gidatu berezi, asteotan

Urrian eta azaroan egingo diren 2025eko Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, 120 ekitaldi izango dira guztira urrian eta azaroan, Gipuzkoako 37 udalerritan; haietatik hiru, Usurbilen.

ARITZ LASARTE

Ondareari merezitako "balioa emateko, herritarrengana hurbiltzeko eta ondarea kontseibatzeak eta transmisioak gizarte kohesioa eta kultura nortasuna indartzen dituen elementu gisa duten garrantziazentsibilizatzeko" proiektua abiarazi zuen Europako Kontseiluak 1991. urtean. Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat eragilerek lankidetzan, Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu ditu hamargarren aldizaurten. Urrian eta azaroan egingo dira, "ondarea eraiki-

tzen" aldarripean. "Aurtengo helburua ondare arkitektonikoari balioa ematea da", antolatzaileen esanetan. Edizio honetan, beraz, "arkitektura-
ren lorpen artistiko eta teknikoak, hiri zalapartatsuetako monumentu handietatik landa eremuetako herri-eraikinetaraino" erakutsiko dira.

Hiru bisita

123 ekintza programatu dituzte guztira 37 udalerritan. 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren eskutik, hiru bisita gidatu programatu dira egitasmo honen barruan. Anto-

latzaileek berriki eginiko agerraldian parte hartu zuen 650 Usurbil Bizi herri egitasmoa dinamizatzaile Ines Azpiatzuk. Berakeskainizituen xehetasunak. "Bestelako turismo eredua proposatzen

**"AURTENGO
HELBURUA,
ONDARE
ARKITEKTONIKOARI
BALIOA EMATEA
DA"**

dugu; herriaren identitate, balore, ondarean eta proiektu eraldatzaileetan oinarritutako eskaintza". Duela hiru urte abiatu zen herri egitasmoa, herritar eta askotariko eragileen arteko lankidetzatik. Bertan erabaki zen, zer nolako Usurbil erakutsi nahi zen. "Hamalau Usurbil identifikatu ziren", gogorazi zuen Azpiatzuk agerraldi hartan.

Haietatik hiru izango dira ikusgai, asteotako Ondarearen Europako Jardunaldiotan; sagardoaren, ondarearen eta memoria historikoaren Usurbil hain zuzen. Izan ere, hiru-
rek "badute lotura zuzena une honetan azaltzen ari garena-
rekin".

Ondarearen Europako Jardunaldiak Usurbilen

Urriak 19, igandea

10:00-13:30 Usurbilgo sagardo kultura: bertso-ibilaldia, Ugarte baserri paretik abiatuta Egiluze baserriraino Jakoba Errekondoren azalpenekin. Bertsoz girotuko dute hitzordua Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak Egiluze baserriaren dolarea ikusten den bitartean.

Urriak 25, larunbata

11:00-12:30 Salbatore Eliza eta bere ondarea ezagutzeko bisita gidatua, organo erakustaldiarekin.

Azaroak 8, larunbata

11:00-12:15 Gerraren Memoriaren Ibilbidea, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Informazio gehiago eta erreserbak (doan): 650usurbilbi-
zi.eus



ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus





Angula arrantzatzeko aurtengo kanpaina bertan behera uztearen alde agertu da Eusko Jaurlaritzak.

Angula arrantzatzeko kanpaina, bertan behera

Aurtengo angularen arrantza kanpaina bertan behera uztearen alde agertu da Eusko Jaurlaritzak. Erabakia txalotu dute talde ekologistek. Aldiz, Euskadiko Anguleroen Elkarteak desados agertu da Gasteizko gobernua hartutako erabakiarekin.

ARITZ LASARTE

Angularen 2025-26 denboraldi-ko arrantza kanpaina bertan behera uztearen alde egin du Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, egunotan jakinarazi dutenez. "Helburua da espeziearen murrizteari aurre egitea eta egoera horri buelta ematea. Alde zientifikoak aingiraren erabateko desagertzea saihesteko proposatzen duenarekin bat dator erabakia". Ildo horretan, aurrera begira, jakinarazi duenez, "lanean jarraituko du espeziea berreskuratze eta haren ingurunearen garapen jasangarria sustatzeko". Egoera "atzeraezina" izan aurretik espeziea berreskuratze neurriak indartzea

beharrezkotzat jo du Jaurlaritzak.

Hainbat txostenetan oinarrituta hartu dutela erabakia berri eman dute eta "txosten horiek ohartarazten dute, orain arte aplikatutako neurriek ez dutela balio izan espeziearen egoera kritikoari buelta emateko". Horien artean dira, "Espainiak Europako Batzor-

"HELBURUA DA ESPEZIEAREN MURRIZKETARI AURRE EGITEA ETA EGOERA HORRI BUELTA EMATEA"

ARRANTZA SAILA, EUSKO JAURLARITZA

deari aurkeztu zion Angularen Kudeaketa Planaren ebaluazio osteko azken txostenaren ondorioak". Azterlan horren arabera, 60 eta 70ko hamarkadetan bizitako aingira-kopuruaren %7 baino ez dago egun eta orain arteko neurriak ez dira aski izan espezie horren egoera hobetzeko. Ildo berekoa da AZTI-ren txostena ere;

"DENBORALDIAREN GAILURREAN ETA EZER EGIN EZINIK UTZI DITUZTELA SALATU DUTE ANGULEROEK"

EUSKADIKO ANGULEROAN ELKARTEA

dioenez, "ez dago espeziea errekupekatzen ari den zantzurik". Arartekoaren ebazpenak, bestalde, "gomendatzen du ibai-aingiraren populazioa berreskuratze neurrietara egokitzen den angularen arrantza arautzea".

Txosten horietan guztietan aipatzen dena aintzakotzat hartuta, aipatu moduan, "Elkadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2025-2026 angularen arrantza kanpaina bertan behera uztearen alde egin du", berretsi dute. Aurrera begira, "ICES-en txostena jaso bezain pronto Lan Mahaia sortuko da azaroan 2010. urteko Angularen Kudeaketa Plana berritzeko. Horretan, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundiek parte hartuko dute, baita AZTIko eta EHUko zientzialariek, Euskadiko Angulero Elkarteak eta ekologista taldeen ordezkari batek ere, espezie horren kontserbazio-egoera hobetzeko eta arrantza berreskuratze neurri berriak hartzeko".

Anguleroen Elkarteak aurka

Aurreko, 2024-2025 arteko azken kanpainan, 198,44 kilo angula harrapatu direla jakinarazi zioten "horretarako baimena duten arrantzaleek" Eusko Jaurlaritzari. Erakunde honek egunotan jakinarazi die bilera bidez Euskadiko Angulero Elkarteak kideei hartutako erabakiaren berri. Elkarte honetako kideak desados agertu dira Gasteizko gobernua hartutako erabakiarekin. Egoeraren kritikotasuna ulergarritzat jotzen duten arren, gehiegizkotzat jotzen dute Eusko Jaurlaritzaren neurria, sektorearentzat kolpe handia izan eta haien lan jardura kaltetzen duela argudiatuta denboraldiaren "gailurrean" eta ondorioz, "ezeregin ezinik" utzi dituztela salatu dute. Debekua EAE-n soilik aplikatuko dela eta, diskriminazio argia dela adierazi dute aipatu Euskadiko Anguleroen Elkartetik. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak



Euskadiko Angulero Elkartekoek egoeraren kritikotasuna ulertzen duten arren, neurria gehiegizkotzat jotzen dute.

—> sektorearekin adostutako hainbat akordio bete ez izana ere adierazi dute, tartean, jarduera honen profesionalizazioaren ingurukoa. Anguleroen elkartaren arabera, egun 142 lizentzia erregistratu daude. 2014tik nabarmen murriztu direla jakinarazi dute, itsasontzien lizentzien antzera. Datuotan oinarrituta, angula berreskuratzearen alde daudela erakutsi nahi izan dute.

Talde ekologistak alde

Eusko Jaurlaritzak angula arrantzatzeko 2025-26 urte arteko kanpaina bertan behe-
ra utzi izana txalotu dute Eguzki Talde Ekologistak eta Mutriku Natur Taldeak. "Ekologiston iritziz, oso albiste ona da Eusko Jaurlaritzak angula arrantzatzeko hurrengo kanpaina, 2025-26, bertan behe-
ra utzi izana", nabarmendu dute ohar bidez. Gaineratu dutenez, "oso albiste ona da Jaurlaritzak espeziearen egoera oso kritikoa dela behingoz onartu izana, batez ere kontuan hartuta, azken urteotan, profesionalizazio-dekretuaren bidez, angularen arrantzari kosta ahala kosta eusteko nolako ahaleginak egin dituen".

Jaurlaritzak aipaturiko txosten zientifikoek diotena "zientzialariak aspalditik esaka ari

direna berrestera" datozela gogorarazi dute; "alegia, espeziea egoera kritikoa dago, segurtasun-muga biologikoe-tatik kanpo". Taldeontzat txosten horien artean, Arartekoak plazaraturiko ebazpena erabakigarria izan da. Izan ere, angularen arrantza profesionalizatzeko Jaurlaritzak onarturiko dekretuaren aurka egin zuen, "ez dator bat Europar Batasunean alor hone-tan indarrean dagoen erregulazioaren helburu nagusiarekin (hau da, aingira babestea-rekin)". Ondorioz, taldeok adierazi dute, Europar Bata-sunak aingira europarra be-rreskuratzeko neurrietara egokitzea gomendatu ziola Arartekoak Jaurlaritzari. "Arartekoak ebazpen hura argita-ratu zuen Mutriku Natur Tal-deak aurkeztutako kexa bati erantzunez, eta bat dator ia puntuz puntu talde ekologis-

tok azken urteotan auzi ho-netan defendatu dugunarekin".

Izan ere, gogora ekarri dute, "aingira "galzori larrian" eta "segurtasun-muga biologi-koetatik kanpo" dagoela iku-sirik, Europar Batasunak, 2023ko otsailean argitaratu-tako Erregelamendu baten bidez, angularen arrantza profesionala murriztu zuen, eta aisialdikoa guztiz debeka-tu. Beraz, Euskadiko Autono-mia Erkidegoan debekatuta geratu zen, aisialdikoa baitzen ordura arte Bizkaian eta Gi-puzkoan egiten zen angula-arrantza bakarra. Orduan, Jaurlaritzak profesionaliza-zio-dekretua atera zuen, EBren erabaki berrietara "egokitzeko" tresna zela argudiatuz, baina guk ohartarazi genuen bezala, hura ez zen egokitzea, Erre-gelamenduari izkin egitea baizik, arrantzatzen jarraitu ahal izateko".

"DEBEKUA EAE-N BAKARRIK APLIKATUKO DENEZ DISKRIMINAZIOA ARGIA DELA DIOTE ANGULEROEK"

EUSKADIKO ANGULEROAN ELKARTEA

"OSO ALBISTE ONA DA JAURLARITZAK ESPEZIEAREN EGOERA OSO KRITIKOA DELA ONARTU IZANA"

EGUZKI ETA MUTRIKU NATUR TALDEA

Bonu kanpaina berria astelehenean hasiko da

Hurbilagok bonu kanpaina berri bat jarri du martxan. Astelehe-nean eta asteartean, Potxoenean eskuratu ahal izango dira. Eta asteazkenetik aurrera, gertuago.eus web orrian. Bonu bakoit-zeko, 20 euro ordain-du eta 30 euro esku-ratuko dira. Hortaz, bonu bakoitzeko deskontua, 10eurokoa izango da. Pertsona bakoitzak, gehienez ere, hiru bonu erosi ahal izango ditu.

Bonuak urriaren 23tik abenduaren 31 bitartean erabili ahal izango dira.

Urriaren 20an eta 21ean, Potxoenean eskuragarri

Aurrez aurreko sal-menta honetarako, establezimendu ba-koitzeko bonuen er-diak bakarrik egongo dira eskuragarri.

- Urriaren 20an aste-lehena, Potxoenean: eguerdian (12:00-14:00) eta arratsaldean (16:00-18:00).

- Urriaren 21ean as-teartea, Potxoenean: arratsaldean (17:00-19:00).

Urriaren 22an, gertuago.eus web orrian eskuragarri

Urriaren 22an asteaz-kena, Internet bidez-ko salmenta abiara-ziko da. Bonuak 16:00etatik aurrera eskuratu ahal izango dira, gertuago.eus web helbidean.

%3 igoko dira zerga, tasa eta prezio publikoak 2026an

Udal gobernu taldearen proposamena hasieraz onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, urriaren 8an eginiko ezohiko osoko bilkuran.

ARITZ LASARTE

Irizpide orokor gisa, datorren urtean, "zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren arabera igotzea, hau da %3 igotzea" proposatu zuen EHBilduren udal gobernu taldeak iragan astean, urriaren 8an eginiko osoko bilkuran. Hurrengo urteko zerga, tasa eta prezio publikoak arautuko dituen udal ordenantza hori gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak, EAJ-ren aldeko botoekin, PSE abstentitu egin zen.



Aurreko asteko ez-ohiko plenoan landu ziren zergen inguruko irizpideak.

Tasak

Ura

Legealdi hasieran, gainerako udalerrietan egin bezalaxe, arazketagatik tasa kobratzen hasi zen Udala. Legealdi Planean progresiboki hiru urtez %20ko igoera aplikatzea jaso zuten. 2026an azkeneko %20ko igoera aplikatuko dute. Estolderiaren %75eko tasa batuta, %135ekoa litzateke igoera orotara.

Halere, udal gobernu taldeak jakinarazi dutenez, urari lotutako tasak "inguruko herrietako baxuena izaten segitzen du".

Hondakinak

%15eko igoera proposatu du udal gobernu taldeak 2026. urterako. Udalak berak eginiko estimazioen arabera, 200.000 euroko galera izatea aurreikusten du aurten alor honetan. Udal gobernu taldeak azaldu dutenez, nabarmen murriztuko litzateke kopuru hori, jokabide onak saritu eta desegokiak zamatzea ardatz izango lukeen fiskaltatea sustatuko balitz.

Ildo horretan, udalerrri honi %20ko hobaria aplikatzen zaio Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren aldetik, baina "uste dugu %45era artekoa jaso dezakeela Usurbilek, kontuan izanda %87ko gaikako bilketa" duela. Hala, tratamendu gastuetan, "45.000 euro gutxiago ordaindu beharko" litzuke herri honek, Udalaren estimazioen arabera.

Jokabide onak saritzea helburu duen Kataluniako kanon eredua hemen aplikatuko balitz, Usurbilek "37.000 euroko diru-sarrera izango luke".

Hilerria

Hiru aldaketa proposatu dituzte. "Emakidak eguneratzea, errautsak lekuz aldatzeagatik eta tanatorio zerbitzuagatik" igoerak aplikatzea. Aldaketa horiekin, orain arteko %50eko defizita, %30era murriztu asmo du udal gobernu taldeak. "Zerbitzua garestitzen ari gara, baina zerbitzua hobetu nahi dugu, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko". Hala, 2026an hainbat eskuhartze egingo dituzte Aginagako hilerrian eta Usurbilgoan, aparkaleku berria.

Zergak

"Usurbilgo presio fiskalaren inguruko azterketa egin dugu", jakinarazi dute udal gobernu taldeak. Ondasun higiezin eta ibilgailuen zergak aztertu dituzte horretarako eta "ez ukitzea", zerga horiek bere horretan uztea erabaki dute. KPIaren %3ko igoera orokor horretatik aldentzen den salbuespenik bada, ordea; gainbalioko zerga. %5eko igoera proposatu dute, "20 urtetik gorako koefizientea azken bi urteetan %10 jaitsi direla eta, gerta litekeen diru-sarrera galera apaltze aldera".

Bestalde, Usurbilgo Udalak hiru urterako etxebizitza plangintza bat landua du, eremu tentsionatuan sartzea ahalbi-

**ONDASUN
HIGIEZINEN ETA
IBILGAILUEN
ZERGAK "EZ DIRA
UKITUKO", BERE
HORRETAN UTZIKO
DIRA**

detu diona. Plangintza horren testuinguruan, etxe hutsei lehendik aplikatzen zaien erre-kargua ere nabarmendu du udal gobernu taldeak. Lehen, %50ekoa zen. Iaz hala erabakita, %150eraino igotzea adostu zuten. Honenbestez, 2025. urte honetan ari dira estreinakoz aplikatzen, zerga eguneratu hori.

Trantsizio ekologikoaren ardatzari dagokionean, azkenik, ondasun higiezin zergan energia aprobetxamendurako hobaria %40tik %50era igotzea proposatu dute, PSE-k eginiko zuzenketa aintzakotzat hartuta.

Prezio publikoak

Haur Eskola:

Aurreikusten diren aldaketak tarteko, ez da igoerarik aplikatuko.

Udajolas:

2026an 135 euroko kostua izango du Udajolasek.

Buruntzaldea mailan adosturiko kirol zerbitzuak:

Buruntzaldean %5,5 igoko dira prezioak eta abonauak.

Hobariak

Udal gobernu taldeak gogora ekarri dute, 2021ean martxan jarritako "hobarien sistema anbiziotsua, justizia sozialean eta aukera berdintasunean aurrera egiteko", besteak beste, prezio publikoetan, "ulertzen genuelako bizikidetzaren unitate bakoitzeko errentak ezin zuela muga izan Udalak eskaintzen publikoetarako sarbidea eragozteko".

Hobariak eskuratzeko erreferentzia gisa estatuak ezarritako lanbidearteko gutxieneko soldata (egun, 1.180 eurokoa) hartzen du kontuan Udalak. "Erreferentzia horrekin neurri horren onuradunak" asko izan daitezke, EHBilduren esanetan.



PSE-EEren esanetan, "urrats garrantzitsua da herritarrek jasangarritasunarekin duten konpromisoa saritzeko". EAE-EVE

Hobari hobeak, energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak instalatzen dituztenei

PSE-EEren zuzenketa aho batez onartu dute udalbatzako gainerako alderdi politikoek. Neurri honi esker, %50eko murrizketa aplikatuko zaie sistema hauek ezartzen dituzten higieziei jabeek.

Usurbilgo PSE-EEK Ondasun Higiezinaren Zergaren (OHZ) hobarietan hobekuntza bat egitea proposatu du, udalerrian energia berriztagarrien erabilera sustatzeko. Eta proposamenak gainerako alderdien onespenera jaso du. "Udalbatzako aho batez onartu du Talde Sozialistak aurkeztutako zuzenketa", PSE-EEtik aditzera eman dutenez. Zuzenketa honi esker, "%50eko murrizketa aplikatuko zaie energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak instalatzen dituzten higieziei, hala nola eguzki-energia termikoa, fotovoltaiakoa edo bestelako iturri garbiak" baliatzen dituztenei.

Petri Romero udal zinegotzi sozialistaren esanetan, "urrats garrantzitsua da trantsizio energetikoa sustatzeko eta herritarrek jasangarritasunarekin duten konpromisoa saritzeko. Ekimen honekin zerga-politika bidezkoago baten aldeko konpromisoa erakutsi nahi dugu. Gainera, aurrerapauso bat da gure udalerriak jasangarritasun-

naren alde egiten duen apustuan, eta, aldi berean, familien inbertsioa sustatzen du energia garbieran eta etxebizitzaren eraginkortasuna hobetzen du".

Abstentzioa, udal tasen inguruko bozketan

Hurrengo urteko tasak eta zergak zehaztu behar ziren aurreko asteko ezohiko udalbatza plenoan. Alderdi sozialistak abstentzioaren alde egin zuen, "arduraz eta aurkeztutako proposamenekin koherentziaz jokatzeko arrazoiak tarteko". PSE-EEK EH Bilduk gidatzen duen gobernu tal-

dearen elkarriketa-gaitasuna eta aurrerapenak positiboki baloratzen baditu ere, ez omen dira kontuan hartu sozialisten ekarpen guztiak. Adibidez, Udalak Erkidegoko indizearen ordezkari Estatuko KPIa (%2,7) erreferentzia gisa aplikatzeko egindako proposamena ez zen aurrera ateratu. "Ekimen horren helburua zen familien eta tokiko enpresa txikien gaineko presio fiskala murriztea; izan ere, Erkidegoko indizearekiko 0,3 puntuko desberdintasunak ez ditu arriskuan jartzen udalaren diru-bilketarako ahalmena eta zerbitzu publikoak, eta gainera, aurrekontuaren aurreikuspenaren barruan barneragarria litzateke".

Abstentzioaren alde egin arren, "Usurbilgo PSE-EEK kudeaketa arduratsu baten alde lanean jarraitzeko borondatea berresten du, jasangarritasun ekonomikoa eta herritarren beharrekiko eta tokiko ekoizpen-sarearekiko sentikortasuna uztartuko dituen".

"EKIMEN HONEKIN ZERGA-POLITIKA BIDEZKOAGO BATEN ALDEKO KONPROMISOA ERAKUTSI NAHI DUGU"

PETRI ROMERO, PSE-EE

Larunbat honetan, 'Emakumeon Topaketa'

Larunbat honetan, Emakumeon Etxeko martxa aztertuko dute. Orain arte egin diren ekimenak errepasatuko dituzte eta talde sustatzailearen azalpenak eta bizipenak emanango dira ezagutzera.

Urriak 18, larunbata

- 10:00-12:30 Emakumeon Topaketa: Gosaria. Ondoren, etxeko martxaren balorazioa, egin diren ekimen ezberdinen argazkiekin.
- Taldea sustatzailearen azalpenak eta bizipenak.
- Udazkeneko programazioaren aurkezpena.
- Udaberriko eskaintzarako proposamenak jasotzea.
- Idoia Torregarainen umorea izango dugu lagun.

Urriak 23, osteguna

- 18:00 Nahia Alkorta Elezgarraik idatzitako "Mi parto robado" liburuaren aurkezpena eta gaiaren inguruko solasaldi musikatua. Egilea bertan izango da, Joana Auzokoa Larrea eta Agurne Alkorta Balbas usurbildarrek lagunduta.
- Izen-ematea: emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 377 112.
- Antolatzailea: Usurbilgo Emakumeon Etxea.

Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzetan izena emateko aukera

Zaintza behar dutenak eta haien zaintzaileak (afektiboak edota profesionalak) elkarrekin bizitzea ahalbidetuko dute Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzek. Guztira, gisa horretako sei bizileku ditu Matiak Kalezarko zaintzadun etxebizitzetan auzune berrian. Haiekin lau alokairuan hartuak ditu Udalak Usurbilgo herritarrei eskaintzeko. Interesdunek urriaren 25era arte eman ahal dute izena.



Arkaitzerrekako isurketen harira, GuraSOsek iragan astean Donostian eginiko agerraldia.

Erraustegia, kezka iturri eta ikerketapean

Kezka eta haserrea eragin du beste behin, erraustegian larunbatean izandako beste sute batek. Ke zutabe horrekin batera, erraustegitik Arkaitzerrekara izandako isurketa kutsakorren harira, 17 lagun deklaratzera deitu dituztela berri eman du GuraSOsek.

Erraustegia hizpide dugu egunotan kontu ezberdinak tar-teko. Batetik, beste behin, sutea izan zen urriaren 11n. Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak jakinarazitakoaren arabera, "sute txikia" berehala itzaltzea lortu eta ez zuen kalte material zein pertsonalik eragin. Jatorria, "mankomunitateren baten, material sukoiaren deskargan" kokatu du Kontsurtzioak eta mankomunitateei "plantan sartzea baimenduak ez dauden materialen debekua betetzearen" garrantzia gogorarazi die. Erraustegitik ikusi ahal izan den ke zutabe handiaren hainbat irudi zabaldu ziren larunbat arratsaldean zehar, kezka eta haserrea eragin zutenak. Hauetako bat jaso zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak. Sare sozialen

bidez, adierazi zuenez, "izua, kezka eta haserrea baino ezin ditut sentitu. Zer gertatzen ari da? Ze kontrol mekanismo ditu planta horrek? Informazio argia eta gardena behar dugu inguruko erakunde eta herri-tarrok!", jakinarazi zuen.

Deklaratzera deituak

2022ko uztailaren 13an erraustegitik Arkaitzerrekara izandako isurketa kutsakorren auziaren harira nobedadeak

"ARKAITZERREKAKO ISURKETEN HARIRA, 17 LAGUN IKERTU GISA DEKLARATZERA DEITU DITUZTE"

daude, bestalde. Izan ere, 17 lagun ikertu gisa deklaratzera deitu ditu Donostiako 5. instrukzio epaitegiak azaroaren 4tik 6ra, GuraSOsek berri eman duenez. Aipatu elkartearen arabera, Zubietako erraustegiaren jardunari lotutako Ekondakin eta Ekobal enpresetako zuzendaritzako kideak daude deklarazioa hartzera deitu dituztenen artean, baitalenen akten eta egiaztagarien igorleak ere.

"HUTSUNEAK DETEKTATU ARREN, KONPONDU EZ ETA ERRAUSTEGIA MARTXAN JARRI ZUTEN"

Deklarazio hartze hau, aipatu epaitegiak Gipuzkoako ingurumen fiskaltzaren eskariz galdegindako adituen txostenean eta Guardia Zibilaren atestatuan oinarritua dago, GuraSOsen arabera.

Elkarte horretatik zehaztu dutenez, adituen txostenaren arabera, lixibiatuak dituzten erraustegiko instalakuntzen elementu ezberdinak martxan jarri zituzten, haien hermetikotasuna bermatugabe. Horrez gain, haien irazgaitasun gabekia eta horren ondoriozko filtrazioak eragindako akats teknikoak ez ziren konpondu. Horregatik, txosten horren arabera, "lixibiatuen isurketa jarraituok ingururako arrisku handikoak dira", erraustegiko jardunak eragindakoak direlako eta bere osagaiengatik, GuraSOsetik aditzera eman dutenez.

"Ez ziren konpondu"

Txosten horren harira, GuraSOsek nabarmendu duenez, "hutsuneak detektatu ziren baina ez ziren konpondu eta erraustegiaren jarduera eta funtzionamendua abiatzea baimendu zuten, ustezko ingurumen delituaren iturri izan dena". Tarte horretan guztian, GuraSOsek gogora ekarri duenez, "erraustegiaren hobia urak hartuta egon zen. Berehala kendu beharrean, biltegitratua utzi zuten, isurketa eraginez". Aipatu elkarteak adierazi duenez, "ikerketak ondorioztatzen du biltegitratutako lixibiatuak kendu izan balira, ez zela isurketa modu berean gertatuko". Testuinguru horretan, azaroko deklarazio hartzeen aurretik, GuraSOsen esanetan, "otsailean eta hurrengo hilabeteetan, Guardia Zibilaren aurrean agertu ziren, "ikertu baina ez atxilotu gisa. Gehienek deklarazioa egiteari uko egin zioten horretarako duten eskubidea baliatuta". Aipatu elkarteak gogorarazi duenez, horregatik izan dira deituak azaroan auzitegian deklaratzera.

Akabo udako jaiak, Aginagako azken ospakizunekin

Asteburuan amaitu dira Aginagako festak eta, haiekin, uda parteko ospakizunen garaia.

Haurrei zein gazteei eskainitako egunarekin, herri kirolen erakustaldiarekin eta azken gaupasarekin, akabo aurtengo, Aginagako jaiak eta baita uda parteko ospakizunak ere.

Bizi askoa izandako urriko lehen asteburuaren eta haren osteko atsedeen egunen ostean, indarberriturik itzuli ziren San Praixkuak Aginagara urriaren 10ean, gaztetxoenen festa handiarekin. Jolasean, puzgari eta apar festa artean joan zitzairen, Lauburu konpartsa-
ren estreinako bisitak boro-
bildutako eguna. Ekintza era-
kargarriez betetako egunpasa

osatu zien jai batzordeak. Egunari jolasean eta sortzen ekin zioten frontoian, ondoko irudiotan ikus dezakezuenetz. Oreka, azkartasuna eta talde lana gailendu ziren, elkarrekin jolastea sustatu zuten proposamenetan. Puzgarrietan jauzika ibili, apar-festan blaitu eta Lauburu konpartsako ki-
deen kalejira egin ostean, iluntzean, gazte afariak eta kontzertu gauak hartu zuten festa giroaren lekukoa.

Lehia bizia

Biharamunean, herri kirolen erakustaldiarekin ekin zioten



Herri kirolen erakustaldiko parte hartzaileak.

ospakizunen azken txanpari. Aizkolaritza eta harri-jasotzea uztarturiko hitzorduan bi talde aritu ziren lehian; lehen taldean, Ainitze Zumeta eta Xabat Olaizola harria altxatzen eta Xabier Zaldúa aizkora ibili ziren; bigarrenetan, Mad-di Gesalaga eta Mikel Lopetegi "Urre" harria altxatzen eta Julen Gabirondo aizkora. Azken horiek izan ziren irabazleak.

Iruditan

Azken gaupasarekin, akabo aurtengo San Praixkuak eta baita iruditan bildu ditugun uda parteko jaien denboraldia ere. Ekainetik urrira iraundako Kalezarko, Usurbilgo, Zubietako, Urdaigako, Atxegaldeko, Santueneko eta aipaturiko Aginagako festei lotutako irudi bildumak ikusgai dituzue, noaua.eus/bereziak helbidean hain zuzen.



Gaztetxoenen trebetasuna jokoan jarri zuen Umeen Eguna.



Umeen Eguneke globo jolasean jauzika.



Aparrez blai amaitu zuten Umeen Eguna.



Lauburu konpartsak urteko azken kalejira egin zuen Aginagan.



Mikel Olasagasti, Beñat Urteaga eta Antton Aranburu, Mihise taldeko kideak. IBAI ARRIETA

"Aldaketaren inguruko gogoeta bat da lan berria"

MIHISE TALDEA

"Ahaldatu" disko berriarekin bueltan dator Mihise taldea zuzenekoetara. Aurkezpen kontzertua antolatuta dute urriaren 17an 19:00etan Sutegin.

ARITZ LASARTE

"Ahaldatu" izena du zuen bigarren lanak. Eraldaketako gogoeta, beharra... irudikatu nahi duzue? Aldaketaren inguruko gogoe-ta bat da; nola aldaketak norberak bila ditzakeen, nola etortzen diren kolpetik, nola aurre egin eta horretarako dugun ahalmena. Hitz-jokoa erabiliz, aldatzeko zer ahalmen dugun, gizakion ahalmena aurrera egiteko eta aldaketetara egokitze, horren aldarrikapen modukoa da.

Bost urte igaro dira estreinako diskatik. Zer "ahaldatu" da ordutik?

Taldea aurretik sortu arren, pandemia hasi eta bi hilabetera ateratu genuen lehen diskoa.

Lan asko egin eta gero hustutze sentsazio bat izan genuen, indarririk ez ezer berririk egiteko. Emandako kontzertuak ederki joan ziren. Zortea izan genuen egoera horretan ere jotzeko aukera eduki izanagatik. Egoera normaltzen joan ahala, elkartzen hasi ginen berriz eta konposaketa lanari espazioa ematen. Sortzeko

"LAGUNEI KANTAK JARTZEAN DIOTE, MIHISE DELA BAINA ERA BEREAN, EKOIZPEN LAN BERRIA"

denbora eta gogoeta behar da, zerbait esateko beharra eta horretarako bizi, bizitze horretan ateratako arazo, esperientziak biltzeko. Konposaketa lan handiena Haraneko lokalean egiten dugu; asko jolasten, inprobisatzen eta probatzen dugu. Horrek ere diskoaren sorkuntza prozesua luzatu egiten du.

"AURREKO LANETIK EZBERDINTZEA ESKATZEN ZUTEN ABESTIEK, BAINA LOTURA IZATEA"

Emailtzarekin gustura zarete?

Aurreko diskoak osagai berri asko zituen; diskoa bera kontzeptuala zen, kanta guztiak elkar lotuak zeuden, instrumentu berriak ziren sintetizadoreekin. Jauzi handia izan zen guretzat. Kasu honetan ez da hain bestekoa izan, baina horrek ez du esan nahi diskoa eta kantak ez direnik ederrak. Gureak eta oso maiteak sentitzen ditugu.

Sorkuntzarako hartutako tarteak zerikusia izango zuen horretan guztian.

Bigarren diskoa izanda, ez genuen guztiz aldatu nahi, ezta gauza bera egin ere. Lagunei kantak jartzean diote, Mihise dela baina era berean, ekoizpen lan berria. Bada disko borobilago bat, Mihise izanda. Desberdina bai, baina Mihise ere bai.

"Dena eman" abestia aurrerapen kantu gisa plazaratu duzue. Zergatik abesti hori?

Oso freskoa da, zuzena. Bere letrak laburbiltzen du disko osoa.

Azal koloretsua diseinatu duzue, koloreen leherketa suma daiteke.

Aurreko lanetik ezberdintzea eskatzen zuten abestiek, baina era berean lotura izatea. Lehen diskoko eta bigarreneko azalak bata bestearen gainean jarrita, lehenengoko sustraiak irudikaturiko hiru marra beltzetatik kolore leherketa dator, abestietan islatzen dena. Azalak lotuak daude, kantuak ere bai. Aurreko diskoko azken esalditik abiatzen da disko honen lehen kanta.

Urriaren 17an aurkeztuko duzue zuen lan berria Sutegin. Zergatik hautatu duzue aurkezpenerako formatu hau?

Argi genuen Usurbilen izan behar zuela. Soinuz eta argiz lagundutako ikuskizun bat garatu nahi genuen. Horregatik aukeratu genuen Sutegi. Lagun giroan gure bost urteko



Mihisek urriaren 17an 19:00etan eskainiko du disko berriaren aurkezpen kontzertua Sutegin. IBAI ARRIETA

ibilbidea ospatzeko ekitaldi berezia izango da. Bi urte izango dira kontzerturik ez dugu-la eskaini (Odolaren Mintzoaren agurreko jaialdiko emanalditxoak salbu). Itzuleraren irrika eta urduritasuna dugu.

"Ahaldatu" da beraz, Mihise urte hauetan guztietan.

Gure jarduna gauza berrien probatze etengabeko bat da.

Hortik aurrerako bidea planifikatua duzue?

Urriaren 25ean, laugarren Kutixik jaialdia antolatu dugu Balio Dute kolektibotik Intxaurren. Urriaren 31n TOC taldearekin Markinako

Gaztetxean eskainiko dugu kontzertua, azaroaren 4an Gasteizko Parral tabernan. Abenduan ere Mutrikun emanaldia lotua dugu. Hasiera honetan nahi dugu mugitu eta kontzertuak eskaini. Aurrera begira, ikusiko dugu zer datorren.

Zer esan nahi diezue Sutegira joan asmo dutenei?

Aurrekoa bezala, disko kontzeptuala da. "Singelak" nagusi diren garaiotan, korrontearen kontra goazela dirudi. Rock talde bat aurkituko dute. Gerturatu! Ez dago ezagutu beharrik kantak edo taldea kontzertu batera joateko. Asko

konposatzen dugu zuzenekoan pentsatzen, jendeak nola erantzungo lukeen... Mihise entzun gabe duenari, eman diezagula aukera hori emanaldian sartzekoa eta behin sartuta, hori bidaia bat da. Gozatu egingo dute seguru. Hau bada, proposamen interesgarri bat musika beste modu batean entzun eta sentitzeko.

"GURE JARDUNA, GAUZA BERRIEN PROBATZE ETENGABEKO BAT DA"

Ugaitz Agirreren ipuin bat nagusitu da Gabriel Aresti ipuin lehiaketan

Sari banaketa ekitaldia astelehenean egin zen Bilboko udaletxean, eta usurbildar idazleak Juan Mari Aburto alkatearen eskutik jaso zuen garaikurra. Euskarazko modalitatean 68 ipuin aurkeztu dira aurten eta Ugaitz Agirreren 'Azalpena' izan da gailendu dena.

Epaimahaiak horrela baloratu du Ugaitzen ipuin saritua:

"Ipuin freskoa, irudimentsua eta erritmo bizikoa. Umorea eta ironia maisuki tartekatzen dituena. Estilo zuzena eta fina darabil idazleak gaur egungo hainbat gairen inguruko kritika sarkorra eginez. Eta ipuin on bati dagokion gisara, bukaera zoragarria du: ipuin osoari, titulutik hasita, zentzua ematen diona".



Juan Mari Aburto Bilboko alkatea eta Ugaitz Agirre. ARGAZKIA: BILBOKO UDALA.

Orbeldiren deialdiak

2026ko otsailean ospatuko ditugun herri inauteriei begira dira Orbeldikoak. "Iaz Orbelditarrok herri-tarren laguntzarekin Urderen etorrerari jarraipena eman genion eta aurten ere bide berdinarekin jarraitu nahi genuke. Laguntzeko prest?", galdetu dute. Ildo horren lanketari lotutako bilera deitu dute urriaren 16rako.

Bigarrenik, hamar urte bete ditu dantza taldeak Orbeldi izena duenetik eta urriaren 25ean ospatuko dute.

Azkenik, Belmonte Auzo Elkartearekin eta Udalarekin Udazkeneko Dantzari eta Trikiti Topafesta antolatu dute azaroaren lehenerako.

Urriak 16, osteguna

- 18:00 Potxoenean. 2026ko herri inauteriak prestatzeko bilera.

Urriak 25, larunbata

- 12:00 Txilibita Fanfarrearekin herria alaitzen.
- 14:00 Bazkaria Uda-rrer. Tikitak Artzabal balen salgai.
- 17:30 Holako Deluxe erromeria, Artzabal.

Azaroak 1, larunbata

- Udazkeneko Dantzari eta Trikiti Topafesta. Kalejira, emanaldi nagusia Mikel Laboa plazan, bazkari herrikoia... Xehetasunak datorren asteko NOAUA'n.
- Antolatzaileak: Orbeldi dantza taldea, Belmonte Auzo Elkartea, Udala.



Buruntzaldeko Ibilbideen Eguneako antolatzaileak, iragan astean Andoainen egindako ekimenaren aurkezpenean.

Eskualdean ibiltzeko deia igandean

Buruntzaldeko Ibilbideen 17. Eguna egingo da igandean, urriaren 19an. Eskualdea ibilian sakonago ezagutzeko aukera ederra zalantzarik gabe. Andoain, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil lotuko dituzten bost ibilbide izango dituzue aukeran.

"Ekimen honen bidez, parte-hartzaileek aukera izango dute Buruntzaldeko landa-ingurune naturala ezagutzeko, jarduera fisiko arina eta lehiarik gabekoa eginez, edozein adin eta mailatako pertsonentzat egokia dena", azaldu dute antolatzaileek. Haien esanetan, "jarduera honen helburua da eskualdeko herrien arteko loturak sustatzea eta ingurune naturala modu osasungarri eta jasangarrian gozatzeko aukera ematea".

Buruntzaldeko Ibilbideen 17. Eguna

Eguna: urriak 19, igandea, 8:00-14:00.

Anoa- eta kontrol-postuak: Andoaingo eta Urnietako herriko plazetan, Lasarte-Oriako Elizatze plazan eta Usurbilgo frontoian.

Oharra: ez da ur botilarik banatuko. Beraz, bakoitzak berea eramatea gomendatzen da. Bideetan zehar iturri ugari daude betetzeko.

Bideetako seinalez tapenaren kolorea: Andoain urdina, Lasarte-Oria urre zaharra, Urnieta berdea eta Usurbil laranja. Udalerrri guztietan bidei buruzko informazio panelak.

Ibilbideak:

- Andoain-Lasarte-Oria: Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak: urdina eta urre zaharra; 7,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
- Andoain-Urnieta: Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

- Andoain-Usurbil: Andatzatik barrena. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
- Lasarte-Oria-Urnieta: Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
- Lasarte-Oria-Usurbil: Koloreak, urre zaharra eta laranja; 4 km. Oinez edo bizikletaz egin

"EZ DA UR BOTILARIK BANATUKO. BERAZ, BAKOITZAK BERE AUKERAK ERABILTZEK DUTEN AUKERA"

daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

Lagungarria: Navi Ruta ize-neko aplikazioa dago telefono mugikorrentzat. Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatzeko udalerrri bakoitzean jarriak dauden paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira edota herri bakoitzari dagokion klabea ipini.

Itzulerarako autobus zerbitzua: geltokietan jarriko dute autobus ordutegia eta ibilbidea, bestela hemen duzue:

- Usurbil, San Inazioako biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.
- Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
- Andoain, Goikoplaza atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.
- Urnieta, Kiosko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.

Antolatzaileak: Buruntzaldeko udaletako kirol zerbitzuak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

Arduradun nagusia: Usurbilgo Udalak.

Laguntzaileak: Euskalduna Mendigoizale Elkarte (Andoain), Ostadar S.K.T. (Lasarte-Oria), Super Amara.

Informazio gehiago: Oiardo kiroldegian edo 943 372 498 telefono zenbakira deituta.



"Aurten lortutako emaitzarekin pozik nago", aitortu du Jugatx Agirrek. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Herri kiroleetan emakumeen presentzia areagotu egin da"

JUGATX AGIRRE SEGALARIA

Jugatx Agirre Zubizarreta (1988) Euskal Herrian egin ohi diren sega txapelketak alde batera utzi, eta nazioarteko lehiaketetako sega modalitatean parte hartzen du.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Nola ikusten duzu emakumeen kirola?

Nik uste emakumezko gehiagok egiten dutela kirola orain. Orokortasun batean galdu egiten naiz, baina herri kirolei dagokienez, emakumeen presentzia areagotu egin da.

Zergatik uste duzu eman dela gorakada hori?

Lehen herri kiroleetan lan luzeak egiten ziren, eta orain lanak moztu egin dira eta pisuak jaitsi dira. Horrek, emakumeak herri kirolak praktikatzea erraztu du eta parte hartzea hantitzea.

Herri kirolak maskulinizatutako kirolak izan dira beti. Herri Kiro-

lak ere aldatzen ari diren zerbait dira?

Oraindik maskulinizatutako kirolak dira. Emakumeen presentzia are eta gehiago da, baina, adibidez, epailetzan emakumeen parte hartzea ia ez dago.

Eta gure kasuan, segan, laguntzaile edo arraiztaile emakumerik ia ez dago. Gero eta

gehiago daude, baina hala ere, gauza oso puntuala da.

Orain sega erdigunean jarrita, zer moduz joan da denboraldia?

Egia esan, aurten ez dut denbora askorik izan entrenatzeko. Egia da aurten abuztuan Europako txapelketa egin da eta gure liga ere aurreratu da. Horrek ekarri duena da hiru

"GURE KASUAN, SEGAN, LAGUNTZAILE EDO ARRAIZTAILE EMAKUMERIK IA EZ DAGO"

"SEGA SAILA, NAZIOARTEKO SEGAKERA ETA HEMENGOA NAHASTEN DITUEN TXAPELKETA DA"

saio horiek epe motz batean egin behar izatea. Emaitzarekin pozik nago, eta indartsu ikusten nintzen, baina nahi nuena ez dut lortu.

Arazorik izan duzu segan emakume izateagatik?

Ez, segan nabilenetik behintzat emakume izateagatik ez dut inongo iruzkinik edo antzekorik izan.

Ligan parte hartzeaz gain, apustuak ere egiten dituzue?

Guk egiten dugun segakera ez da Euskal Herrian orain arte egin izan dena, eta nire kasuan, nazioartean egiten den lehian parte hartzen dut. Lana laburragoa da, 35 metro karratu ebakitzen ditugu ahalik eta azkarren eta txukunen. Euskal Herrian ordu-erdi edo ordu-beteko saioak izaten dira eta kiloak zenbatzen dira. Kilokoan taldea behar da, eta guk egiten dugun bezala gu bakarrik atera gaitezke eta jarraitzeak errazten du.

Bakarka egiten duzue lan?

Bai, bakarka egiten dugu lan. Egia da orain dela hiru urte binakako sega sail txapelketa egiten hasi ginela. Hemen sortu den modalitate berri bat da, eta nazioarteko era eta hemengoa nahasten dituen txapelketa da.

Zaleei dagokienez, oraindik zaletasuna sustatzen du segak?

Garai bateko irudiak daude eta jende asko joaten zen. Gaur egun gu joaten garen ekitaldietara ez da jende askorik joaten. Baina gaur egun dagoen kirol eta eskaintza kulturalarekin ezin zara toki guztietara joan. Hala ere, sega bizirik dago.

Zer esango zenioke segan hasi nahi duen emakume bati?

Probatzeko. Milaka kirol daude, eta batzuetan kirol batean hasten zara eta ez zaitu erakartzen. Baina azkenean gogoko kirol bat topatzen duzunean motibatzen zaitu eta helburuak jartzen dituzu.



Txalapartaz blaituko digute datorren larunbaterako, urriaren 18rako Usurbilen antolaturiko festarekin.

Larunbateko jaialdiak txalaparta ikusaraztea du helburu

Plazararen erdigunera ekarri eta jendartean merezitako tokia egingo dio herri honek larunbat honetan ospatuko duen Txalaparta Festarekin. Musika instrumentu honetaz gozatzeko aukera izango da urriaren 18an, egun osoko hitzorduen bidez.

Ttakun hotsek hartuko dute herria larunbat honetarako, urriaren 18rako Jexux Artze Kultur Elkartek antolaturiko Txalaparta Festaren eskutik. Zentzumen guztiak dantzan jarriko dituen edizioa prestatu dute aurtengoan ere, plazaren erdigunera ekarriko dute eta instrumentua ikusi, entzun edota ukitzeko aukera. Ohi bezala, aurreko urteen antzera, oraingo honetan ere "txalaparta ikusaraztea, jendeari kalean jotzeko aukera ematea, kanpoko txalapartariak ekarri eta haiek nola jotzen duten ikustea eta ezagutzea" nahi dute antolatzaileek.

Barrura begirako hitzordua ere izatea nahi du, ordea, Jexux Artze K.E.-k. "Batzeko,

indarra egiteko. Azkenean, ikasle piloa gabiltza, baina bakoitza, bere saio ordura doa, ikasi beharrekoa ikasi eta gero zaila da kalean biltzea". Talde gisa indartzeko baliatu nahi dute hilaren 18ko festa. "Kalean jotzea tokatzen bazaigu, konfiantza gutxienezkoa izan behar da txalapartari kidearekin. Jai giroan egiten diren halako topaketek asko laguntzen dute horretan", nabarmendu dute.

Hitzordu baten faltan

Aurtengo topaketa parte hartzailea, dinamikoa, ibiltaria izango da. Goizean, herritarren esku egongo da txalapartaz herria girotzea, Saizarko bazkarian ere horretarako auke-

ra izango da. Arratsaldean, bisitan datozkigun taldeekin kontzertu ibiltaria izango dugu herri erdigunean barrena.

Hitzordu bat bada, aurtengoan, Jexux Artze K.E.-k programatu ez duena. Duela urtebeteko edizioan, Salbatore elizako kanpandorretik ezkilak jotzeko ohitura berreskuratu zuten. Gerora,

"JAI GIROKO HALAKO TOPAKETEK ASKO LAGUNTZEN DUTE KONFIANTZA HARTZEN"

segida eman asmo zioten egun seinalauean; urtarilaren lehenean egin zuten moduan, herriko festen jaiegun nagusian, Santixabel Egunez, eguerdiko soka-dantza hasi aurretik.

Baina hara igotzeko eskilaren egoera tarteko, aurtuen ezingo da halakorik egin. "Pena itzela ematen digu ezkilak ezin jo izana. Iaz, ez ginen oso seguru zer eragin izango zuen, baina neurri batean historia egin genuela jabetu ginen", oroitarazi digute Jexux Artze K.E.-tik. Horregatik, lerroon bidez "adierazi nahiko genieke hori bideratzeko ardura izan dezaaketenei herriarentzako onuragarria litzatekeela horren konponketa".

"Oso instrumentu berezia da"

Larunbateko jaialdiak topagune izaera izango du, bai txalapartaren kultura hedatzen ariren direnzentzat, zaletuentzat eta musika instrumentu hau sakonago ezagutzen ari direnzentzat. Izan ere, badira zenbait urte Jexux Artze K.E. Zumarte Musika Eskolan txalapartan trebatzeko aukera eskaintzen hasi zenetik. Orduetik, hainbat ikasle hurbildu dira instrumentu honetara. Haien artean da Iosu Romero herrikidea.

Bere gurasoak hasi ziren ikastaro horretan parte hartzen. Musikarako zaletasuna aspaldidanik badatorkio ere, haien bidez hasi zen trebatzen. "Perkusioa aspalditik jotzen" aritutakoa da Romero eta adierazi digunez, "beti erakarri" izan dio musika instrumentu honek. "Perkusionista gisa" hain zuzen, atentzioa deitu zieten txalaparta irakasteko saioek. "Oso instrumentu berezia da", bere esanetan. Berezitasunen artean, binaka jotzen dela nabarmendu du eta batez ere, "perkusioen munduan ez daude instrumentu asko bere kabuz jotzen direnak", beste inolako tresnarik gabe. Ezohiko-

→ tasun hori eta aipaturiko gainerako berezitasunek "erakartzen zidaten gehienbat txalaparta jotzen hastera".

Jaialdiaren garrantzia

Lehenbizi, aitarekin batera aritu zen trebatzen eta gero lagun batekin, gustura dabil klaseetan. Musikagintzan urteetan aritu ostean, "erraztasuna ikusi dut beste perkusioetatik ekarri dudana; azkenean, ariketak oso antzekoak direla". Halere, zerbait desberdintzekotan, "teknika" aipatu du, "hori bai, oso ezberdina da".

Ikasitakoa jendartearekin partekatzeko aukera izan du, gainera, lagun baten omenaldian hain zuzen. "Une oso hunkigarria izan zen, oso polita izan zen. Ezkontza batean txalaparta jotzeko ere proposatu ziguten baina ez zen aurrrera atera", oroitarazi digu.

Larunbatean ospatuko den Txalaparta Festan parte hartzeko asmoa du Iosuk. Iazko edizioa gogoan hartuta, giro aparta izan zela oroitu digu. Oso polita iruditzen zaio "txalapartari protagonismo hori ematea. Geroz eta ezagunagoa bada, halako ekimenei esker da". Garrantzitsua da bere ustez, "jendeari instrumentua ezagutaraztea, soinu bera, oso soinu desberdina da".

Txalaparta jotzeko deia

Bera ere larunbateko jaialdian parte hartzeko da. "Ahal denean laguntzeko prest" izan-godela aurreratutako NOAUA!-ri eskainitako elkarrizketa honen bidez. Elkartetik bereziki, urtean zehar antolatzen dituzten ikastaroko ikasleak parte hartzera gonbidatu nahi ditu goiz parteko "herri erromerian", baita herritarrak ere.

Libreki eta informalki txalapartaz gozatzeko aukera izango da hilaren 18an. Garrantzitsutzat jotzen dute hitzordu hau antolakuntzatik, "instrumentuari eta plazari konfiantza hartzen joateko". Izan ere, "buruan dugu Usurbilen eki-



Jexux Artze K.E.-ko kideen artean da Iosu Romero, txalaparta ikastaroko ikasleetako bat.

taldi piloa egiten direla. Nahi izanez gero, aukera piloa izan ditzakegu urtean zehar jotzeko. Horra iristeko, ez du zertan txalapartari bikote bakoitzak finkoa izan beharrik baina zerbait prestatzea ona da". Txalaparta jotzerakoan inprobisatzen den arren, "inprobisatzeko prestaketa behar da, konfiantza eta prestasuna", gogorarazi dute. Horrenbestez, norabide finkoa du Jexux Artze K.E.-k. "Une horretara heltzea da helburua, txalaparta jotzera gonbidatzeko deitzen gaituztenean, gustura erantzun ahal izatea".

"Esker oneko instrumentua da"

Txalapartara hurbildu nahi duenari, hemen Iosuren gomendioa. "Dakien batengana gerturatu, oso erraza da transmisioa. Bestalde, saiatu leku bat lortzen txalaparta jotzea

ahal duzuna, hori izan ohi da zailena".

Larunbateko festan egingo den moduan, urtean zehar eskaintzen dituzten ikastaroen bidez ere, txalapartaren kultura hurbiltzeko aukera eskaintzen du Jexux Artze K.E.-k. "Esker oneko instrumentua da", nabarmendu digute. Izan ere, "ondo jotzeko urteak igaro daitezke, baina ikastaro motz batekin saiotxo bat egiteko gai gara". Iosu Romero ikasleak gaineratu duenez, beste musika instrumentu hainbatekin ez bezala, "ez da buruz ikasi behar oinarri tradizional hori jotzeko". Esker onekoa izateaz gain, musika tresna gisa duen potentzialtasuna nabarmendu dute bai "musika estilo ezberdinetarako eta gauza berriak probatzeko aukera handiko instrumentua da". Izan ere, "bere funtzioa definitzeke dago

oraindik. Sortzaile bakoitzak nahi duena egin dezake". Bestelako tresnekin alderatuta, txalaparta "garatu gabe egoteak potentzialtasun handia ematen dio. Material berriak sortu dira, konbinazioak infinituak dira". Haietako hainbat doinu ekarriko dizkigute bertako nahiz kanpoko txalapartariak larunbaterako prestatu duten jaialdira.

Txalaparta Festa

Urriak 18, larunbata

11:45 Herri erromeria eta txorizo eta sagardo banaketa, Mikel Laboa plazan (euria bada, Askatasuna plazan): adar deia, albokariak, txalaparta irekia eta ikasleen emanaldia.

14:00 Ibilaldia albokariekin, kaxkotik Saizar sagardotegira.

14:30 Bazkaria Saizarren. Bazkaria bitartean, txalaparta irekia.

18:30 Malkoak TX eta Talka taldeen kontzertua, herrian zehar, Artzabalgo plazatik hasita.

20:00 Juan Mari Beltran lau-kotearen kontzertua, frontoian.

Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte eta 650 Usurbilen Bizi.

**"URTEAN ZEHAR
AUKERAK EGON
DAITEZKE SAIOAK
ESKAINTEKO,
PRESTATZEA ONA
DA"**

**"BERE FUNTZIOA
DEFINITZEKE
DAGO ORAINDIK.
SORTZAILEAK
NAHI DUENA
EGIN DEZAKE"**



Udal-brigadak azken kalteak konpondu eta gero zabalduko da berriro ikasgela.

Giltza beharrezkoa izango da, Munalurrako ikasgelara sartzeko

Ikasgela hirugarrenez kaltetu zuten iragan astean. Biharamunean, Udalak behin-behinean itxia erabaki zuen. Erabiltzaileekin batu eta gero, giltza bidezko sistema ezarri da.

Erabiltzaileekin egindako bilera, orain arte hartu gabeko neurriak hartzeko asmoa agertu zuen Udalak eta asmo hori betetzera doaz orain. Izan ere, momentuz itxita egongo da ikasgela hau, udal-brigadak azken kalteak konpon ditzan. "Udal brigada jada hasi da konponketak egiten: itxialdia baliatuko da lehendik zeuden akatsak konpondu eta guztia pintatzeko", jakinarazi du Udalak.

Araudi bat prestatuko du Udalak
Urriaren 20an ireki asmo dute berri, iragan 2024ko urriaren 15az geroztik egin duten moduan, astelehenetik igandera, 08:00-22:00 artean. Baina bertara sartzeko aldaketa esanguratsu bat izango da; giltza beharkoda. "Sutegi liburutegian

jarriko diren eskaera orrien bidez" eskatu ahalko dira giltzok. "Horrekin batera, araudi bat prestatuko du udalak, eta erabiltzaileei helarazi, giltza ematearekin batera. Ikasketa beharrak bukatutakoan soilik itzuli beharko da giltza".

Liburutegiko ordutegitik kanpo, Udaltzaingoan ere ikasgelako giltza eskatu ahalko dela ohartarazi du Udalak.

Sutegi liburutegiaren ordutegia

- Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 eta 16:00-19:30.
- Larunbatetan: 10:00-13:00.

Udaltzaingoaren ordutegia

- Astelehenetik ostiralera: 07:30-21:00
- Larunbatetan: 09:00-21:00
- Igandetan eta jaiegunetan: itxita.

Bertso-afaria Santuenean

Ostiral honetan, bertso afaria Santueneko Ibai-Ondo elkartean. Menua hauxe izango da: txistorra, bakailoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra, intxaurrak, kafea, kopa. Prezioa: 35 euro. Txartelak Esnaola dendan salgai.



Eli Pagola (argazkian), Sustrai Colina eta Nerea Elustondo arituko dira.

Urriak 17, ostirala

- 21:00 Ibai-Ondo Elkartean.
- Bertsolariak: Nerea Elustondo, Sustrai Colina, Eli Pagola.
- Gai-emailea: Onintza Gartzia.

Urriak 24/azaroak 7

- 17:30-19:30 Sendabelar koa-dernoa Leire Lazkanoren eskutik, Santueneako frontoi ondoko lokalean.
- Santuenea K.E.ko bazkideek 30 euro, bazkide ez direnek 35.

Azaroak 16, igandea

- 11:00-13:00 Heriotzaren pedagogia bizipen tailerra Manex Beristainen eskutik.
- Santuenea K.E.ko bazkideek 30 euro, bazkide ez direnek 35.

Plazak, mugatuak

- Izen-ematea: 621 095 644 santueneake@gmail.com
- Antolatzailea: Santuenea K.E.

Azaroaren 5ean, emozioen kudeaketari buruzko saioa Potxoenean

"Gure emozioak kudeatzen, seme-alaben bidelagun izateko" izeneko hitzaldia antolatu dute Udarregi ikastolako Hitz Aho Guraso Elkartek, Gaztelekuak, Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Treba Gurasoak egitasmoaren testuinguruan. Foru Aldundiak sustaturiko proiektuak "gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz, haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea du helburu".

Plaza kopurua, mugatua

Saioa azaroaren 5ean izango da, 17:30etan Potxoenean. Izena doan eman ahalko da usurbilkultura.eus plataformaren bidez. Plaza-kopurua mugatua izango dela ohar-

tarazi dute antolatzaileek. "Historikoki eta belaunaldi batzuetan emozioak ezkutatut izan dira. Guraso askok ez dute gai honen inguruko eredu osasungarririk jaso, eta berebiziko garrantzia du horri leku bat egiteak". Horretara bideratuko dute azaroaren 5eko saioa. "Landuko diren edukiak eta gaitasunak: Emozioak ulertzen. Zer dira emozioak? Eta sentimenduak? Zer informazio ematen digute? Zertarako balio dute? Ze onura dakartzate? Emozioak kudeatzeko gakoak. Pausoz pauso. /Baliabide praktikoak adimen emozionala garatzeko eta seme-alaben bidelagun osasungarriak izateko".

TXAPELDUN
ARDANGELA
EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurra 2, 943 49 88 83

txirriStra
TABERNA
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



15 olio-pintura eta tenperan egindako 12 marrazki topatuko dituzue Donostiako erakusketan. ARGAZKIA: LUIS JAMBRINA

Erakutsi ez den Zumeta ezagutzeko aukera

USOA ZUMETA ERAKUSKETAKO ANTOLATZAILEA

Urteak dira Donostian ez dela Zumetaren erakusketarik egin. Kur galeria zegoeneko toki berean aurkituko duzue Zumetaren obra. Koadro horietako batzuk oraindik erakutsi gabeak ziren.

IMANOL UBEDA

Donostian, Zurriola 6 kalean dagoen galerian zabaldu duzue erakusketa. Orain arte Kur galeria zegoen toki berean, ezta?

Hori da. Kur galeria egon da hor urtetan, 20 edo 35 urtez, baina orain mugitu egin dira. Batzuk atera eta beste batzuk sartzen ziren tarte horretan lortu dut hilabeteko tartetxo bat erakusketa egiteko.

Kur galeriakoek fokuak utzi dizkidate eta espazioa eginda dago. Beraz, erraza izan da.

Galeria soto batean dago. Goiko lokala NAIZ hedabidearena da eta beraien erakuslehoia erabiltzeko aukera lortu dut. Obra bat jarri dut NAIZen erakuslehoi horretan.

Amu bezala funtzionatu dezake. Hori da asmoa, ze galeria oso diskretua da. Ez baduzu eza gutzen, ez zara konturatzen. Eta lokalak merezi du, Donos-

tiako galeria potenteenetakoa izango da.

Zer obra erakutsiko duzue?

Aita zendu zenetik, Donostian ez da erakusketarik egin. Gipuzkoan, Usurbilen egin dira erakusketa pare bat baina beste kontzeptu batekin. Muralaren inguruan, eta izaera didaktibo batekin. Ibilbide bat azaldu nahi zen.

Kasu honetan erakusketa komertziala da. Maila horretan, planteamendua ezberdina da. Hortik abiatuta, saiatu naiz erakutsi ez den obra eramaten.

Azken boladakoak dira?

Batzuk bai, baina 2016 eta 2018ko obrak ere badira. Horretan.

"ERAKUSKETA AZAROAREN 9RA ARTE EGONGO DA ZABALIK"

rietako batzuk erakutsiak izan dira Bizkaian edota Bartzelonan, baina hemen ez. 15 olio-pintura eta 12 marrazki (tenperan eginak). Tartean, pandemian egindako batzuk. Azken-azkenak, Argentinan hasi zituen baina handik korrika alde egin behar izan zuen eta etxean bukatu zituen.

Ze formatukoak dira? Handiak, ertainak...

Obra handia erakusteko oso galeria ona da, baina obra handiak merkatu zaila du. Txikiak izan gabe ere, saiatu naiz tamaina egokikoak aukeratzen. Aita bazen formatu handikoa. Bada pieza bat, handiena, dip-tiko bat izan zitekeena. Bi koadro dira, gertu jarri ditut eta elkarren jarraipena dira, elkar-tzen dira. Baina koadroek sinadura bana daramate. Dip-tikoa balitz, batek bakarrik eramango luke sinadura. Eta lan hau erakutsi gabe dago oraindik. Biek batera bost metroko pieza osatzen dute, pentsa. Ez dago horrelako etxerik hemen inguruan, baina tira...

Erakusketa Donostian

- Donostiako Zurriola 6 kalean.
- Azaroaren 9ra arte zabalik.
- Bisita-egunak eta orduak:
 - Asteartetik larunbatera, 11:00-13:30 / 17:00-20:00.
 - Jaiegunetan eta igandetan, 11:30-13:30.

Booktegiren jaialdia astebete barru ospatuko da

Euskarazko literatura guztion esku doan jartzen diharduen Booktegi elkarteak antolatutako jaialdia izango da astebe-te barru:

Booktegi jaialdia

Urriak 24, ostirala

19:00 Rupertorioa: "Ruper Ordorikak berak idatzi dituen letren omenaldia: musika, errezitaldia, hausnarketak, kontakizunak...". Parte hartzaileentzako izen-ematea info@booktegi.eus helbidean, urriaren 17ra arte.

Urriak 25, larunbata

Zumarte Musika Eskolan:

10:00 'Elkarri Irakurriz' bi solasaldi. Batean, Iñigo Astiz, Irati Zubia eta Miren Agur Meabe. Bestean, Ane Labaka, Garazi Albizua eta Itxaro Borda.

Sutegin:

16:00 Udarregi ikastolako Booktubers.

17:30 Oihan Vega, "Euskañolitis".

19:00 Ameba.

Udal liburutegiko solasaldiak

Urriak 22, asteazkena

• 19:00 Gaztelarazko solasaldia, Ana Merinok zuzendua. Lucia Berlingen "Manual para mujeres de la limpieza" ipuin liburuko lau ale hartuko dituzte ahotan: "Lavandería Ángel", "Macadán", "Manual para mujeres de la limpieza" eta "Punto de vista".

Urriak 27, astelehena

• 17:30 Irati Goikoetxearen "Nor" liburuari buruzko irakurketa-solasaldia 11 urtetik gorakoentzat udal liburutegian.

• Oharra: saioetarako liburu-aleak eskuragarri dituzte liburutegian.



Bihurri ludotekak 'Yoga familian' izeneko ikastaroa jarri du martxan. Urriaren 10ean bukatzen zen izen-ematea. Saioen formatua eta egutegia partehartzaileekin erabakiko da. Datu gehiago, bihurri ludoteka@gmail.com helbidean.

"Umeekin konektatzeko momentua izan daiteke yoga saioa"

AITZIBER ARANGUREN YOGA IRAKASLEA

Bihurri ludotekak 'Yoga familian' ikastaroko lau saio antolatu zituen hasiera batean, baina Usurbilen izan duen harrera ikusita, saio gehiago antolatzea erabaki dute. Aitziber Aranguren da ikastaroko irakaslea.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Lehenengo aldia da umeentzako yoga saio bat eskaintzen duzula Usurbilen?

Ez. Usurbilen orain hasi naiz umeentzako yoga saioak ematen, baina beste leku batzuetan lehenagotik ematen ditut saio horiek.

Iaz Aginagan eman nituen yoga saioak, baina umeentzako bakarrik izan ziren, ez ziren "yoga familian" saioak izan.

Nolakoa da umeentzat bideratuta dagoen yoga saio bat?

Niretzako ez dute zerikusirik eta oso desberdina da. Normalean umeekin jolas asko erabiltzen ditugu posizioak ikasteko, arnasketak ikasteko eta lasaitzeko ere. Yogako posturak ikasten dituzte, baina animalien bidez edo landareen bidez. Haurretan eta helduetan lantzen dena berdina da, baina haurrei beste modu

batera erakusten zaie, askotan, ez direlako gai hainbeste denbora kontzentratuta egoteko.

Haurrei bideratuta dago, baina familiako beste kideek ere parte hartu dezakete?

Gurasoek parte hartu dezakete, eta garrantzitsua izan daiteke guraso eta umeen arteko harremana beste modu batean lantzen delako. Gurasoek eta haurrek berdina lantzen dute.

Saioak umeekin konektatzeko momentua izan daitezke, baita lasai egoteko ere.

Nolako harrera izaten dute horrelako saioek?

Normalean gustuko dute, eta gustura etortzen dira saioetara. Azken finean, gure haurrekin denbora bat hartu eta lasai egoteko tarterik ez dugu hartzen, eta saioek elkarrekin egoteko aukera ematen dute.

Saioak zergatik izango dira bi astean behin?

Saioetara joaten diren haurrak nahiko txikiak dira, 3-4 urtekoak. Nik garrantzia ematen diot denbora libreari, eta iruditzen zait gure haurrei geroz eta denbora libre gutxiago uzten diegula. Denbora libre oso beharrezkoa den gauza bat iruditzen zait, eta horregatik da bi astean behin.

Ate irekien eguna

Urriaren 25 larunbata, ate irekien eguna Bihurri ludotekak. Goizeko 10:00etatik 12:00etara egongo da ludoteka zabalik. Informazio bila gerturatzen den edozeini harrera egingo zaio eta, aldi berean, ludoteka bera eta bertan dituzten jokoak ikusteko aukera egongo da.

"NIK GARRANTZIA EMATEN DIOT DENBORA LIBREARI ETA HAURREI GEROZ ETA DENBORA LIBRE GUTXIAGO UZTEN DIEGU"

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

ARRANDEGIA PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. Harremanetarako: 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lan bila nabil ume zaintzarako edo eskolako lan esfortzurako. Haurren aisialdirako hezitzailea naiz eta esperientzia handia dut. 688 699 986

Usurbilgo emakume euskalduna naiz eta etxeak garbitzeko eskaintzen dut nire burua 615 724 543.

Orduka aritzeko lan bila nabil. Garbiketa lanak edo pertsonen zaintza aritzeko prestutasuna. 623443766

Pertsona helduan zaintzeko lan bila nabil. Zaintzaile titulazioa dut eta esperientzia handia. Interna moduan edo orduka lan egiteko disponibilitatea. 618814363 (Marta)

Lan bila nabil. 668 57 85 52 / anquitor@gmail.com

Garbiketa lanak edo ume zein helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila nabil.

Erreferentzia onak dauzkat. Goizetan 16:00ak arte lan egiteko aukera. 604302785

Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egiteko lan bila nabil. Zaintzaile titulua daukat eta interno moduan edo orduka lan egiteko disponibilitatea. 631654743

BESTELAKOAK

Batxilergo 2. maila egingo duen ikasle bati matematika eta fisikako klase partikularrak emateko norbaiten bila gabiltza. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Haurren aisialdirako hezitzailea naiz, eta esperientzia dut. 688896135

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila nabil. DBH3ko ikasle bati, astean 3 egunez. Ikasurte osoko konpromisoa: 647742588

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Eskubaloia Oiardon

Urriak 18, larunbata:

- 19:30 Senior mutilak:
- Saizar Usurbil K.E.-Tarazona

Urriak 19, igandea:

- 10:00 Jubenil mutilak:
- Usurbil K.E.-Hettich ZKE

Errebote txapelketa

Urriak 19, igandea

Luzean-Zaharrer Segi
Zubieta 2-Kanboarrak
Oharra: lekua eta ordua zehazteke

Pilota partidak

Urriak 16 osteguna, 18:45 Bergaran

Jubenilak 1. Mailan eskuz binaka:
Pagazpe (Etxabe-Errasti) -Tolosa 5

Urriak 16 osteguna, 21:00 Aginagan

Gomazko palaz binaka, Gipuzkoa
2. Mailan:
-Pagazpe (Errasti-Ibargoien)
- Beloki

Urriak 17 ostirala, 19:00 Usurbilen

Infantil 3. Mailan Errendimenduko txapelketa eskuz banaka:
Pagazpe (Zubiaur) - Eple (Mogollon)

15 operarioren kontratazioa egingo da Beterri-Buruntza eskualdean

Beterri-Buruntza Mankomunitatearen eskutik, martxan dira berriz Tokiko Enplegu Proiektuak. "Aurten ere bi jarduera-mota jarriko dira martxan, eta bi kasutan arretaberezia jarriko dietelan-merkatuan egoera ahulenean dauden kolektiboak, bereziki emakumeak eta luzaroko lan-

gabekak", deitzaileek berri eman dutenez.

Batetik, "tokiko enpresek eskualdeko udalerrietan errol-datutako langabeak merkatu arruntean kontratatzeke laguntzak" jaso ahalko dituzte.

Bestalde, "langabetuen enplegarritasuna indartzeko, aldi baterako lan-esperientzia

eskaintzen duten kontratazioak egingo dira".

Guztira, Zeregin Anitzetako Langileen proiektu bateratua-ren baitan, bost hilabeterako 15 kontratazio aurreikusi dituzte, haietatik bi Usurbilen, kasu guztietan, aurrez "EAGIn formakuntza jasotzeko aukerarekin". Deialdi horretan ize-

na emateko aukera dago lanbide.eus atarian. Ildo horretan, "aurten berrikuntza moduan, hirugarren sektorearen bitartez beste 4 kontratu gehiago egingo dira. Azkenik, Mankomunitateak berak lan eskaintza bat ere argitaratuko du. Datoren egunetan xehetasun gehiago argitaratuko dira".

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 17

USURBIL Mihise taldearen kontzertua*'Ahaldatu'* diskoaren aurkezpena.
19:00 *Sutegin*.**SANTUENEA** Bertso afariaBertsolariak: Nerea Elustondo,
Sustrai Colina eta Eli Pagola.
Gai-emailea: Onintza Gartzia.
Txartelak Esnaolan salgai.
21:00 *Ibai-Ondo elkarte*an.

"Ahotsez" kantaldia eskainiko dute igande honetan Eliza Zaharrean.

**Datorren
aste**an, organo
kontzertuaUrriaren 24an Mikel
Ansola Garitagoitia-
ren kontzertua an-
tolatu du Organoaren
Lagunak taldeak
Usurbilgo Udalaren
laguntzaz, urriaren
24an 19:30etan Sal-
batore elizan.

LARUNBATA 18

KALEZAR Emakumeon
TopaketaInformazio gehiago, 9. orrialdean.
10:00-12:30 *Emakumeon Etxean*.**USURBIL** Txalaparta festa

Informazio gehiago, 16-17 or.

ZUBIETA Ana Goitiaren
bakarrizketaZubieta Lantzenen eskutik.
19:00 *Zubietako elizan*.

IGANDEA 19

KALEZAR Bertso-ibilaldiaMaialen Lujanbio, Andoni Egaña
eta Jakoba Errekondorekin.
10:00 *Ugarte baserri atarian*.**USURBIL** Buruntzaldeko
Ibilbideen 16. EgunaIkus 11. orrialdea.
08:00-14:00 *artean*.Kalakan eta Berçaitz
Anaiak Aginagan

"Ahotsez" izeneko emanaldia eskainiko dute igande honetan Aginagako Eliza Zaharrean. "Proiektu berria kantuari oro har eta euskal kantugintzari bereziki, maitasun adierazpena da", artistek adierazi dutenez. "Zehazkiago esanda, lau artistek familiako mahai handien inguruan entzun, ikasi eta kantatzen dituzten kantuekiko maitasun hori partekatuko dute gurekin".

Ahotsez kantaldia

- Partehartzaileak: Kalakan eta Berçaitz anaiak.
- Eguna: Urriaren 19a, igandea. Ordutegia: 18:00.
- Tokia: Aginagako Eliza Zaharra.
- Sarrerak 12 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataformaren bidez.
- Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra.

Ana Goitiaren 'Katana' bakarrizketa

Larunbat honetan Zubietako elizan arituko da, arratsaldeko 19:00etan hasita. Zubieta Lantzenek antolatu du emanaldia eta sarrerak usurbilkultura.eus plataforma bidez eskuratu ahalko dituzue. "Ana handia da, galanta. Bizitzan gertatzen zaion guztia ere handia da eta kontatzeko modua ere halakoa dauka".

Gure Zirkua
Urbilgo
aparkalekuan

Gure Zirkua azaroan iritsiko da gure artera. Sarrerak abiada bizian saltzen ari dira. Hauek dira iragarri dituzten emanaldiak:

- Azaroak 14, ostirala: 19:00.
 - Azaroak 15, larunbata: 18:00.
 - Azaroak 16, igandea: 12:00/17:00.
 - Azaroak 21, ostirala: 19:00.
 - Azaroak 22, larunbata: 18:00.
 - Azaroak 23, igandea: 12:00/17:00.
 - Azaroak 28, ostirala: 19:00.
 - Azaroak 29, larunbata: 18:00.
- Sarrerak eta informazio gehiago: gurezirkua.eus atarian.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
· eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrea 6, Usurbil.

EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!

www.noaua.eus

Antxi
bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

OFIZIOEN GIDA

maiz
hornigalak

•TRESNERIA ETA ERREMINTAK
•EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

•ERAIKUNTZAK •OBRAK
•BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

•Fatxaden estaldurak •Estalkien berriztatzeak
•Barruko berrikuntzak •Gremioen koordinaketa
•Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Hipodromo kalea 10, LASARTE

Tel.: 693 05 93 92 uraitz@uraitz.com

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

•FATXADAK ETA TEILATUAK
•ERAIKUNTZAK •BARRUKO BERRIKUNTZAK
•URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL
J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@hotmail.com
943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas
Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

•komertzial instalazioak
•beira bikoitza •segurtasun beirak
•dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri
arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com

Eskuratu zure erosketa Bonua

urriaren
20tik
aurrera



BULTZA!
EROSLE TXIKIEN
IRAULTZA

Non erosi bonuak?

PRESENTZIALKI

Potxoenea Kultur Etxea

Urriak 20

12:00-14:00 / 16:00-18:00

Urriak 21

17:00-19:00

ON LINE

gertuago.eus

Urriak 22: 16:00etatik aurrera